



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2018ko OTSAILA - 191. zenbakia

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2017 jasotzen duen lana plazaratu da

www.lanku.eus webgunean eta Bertsozale Elkartearen egoitzan eskura daiteke liburua eta CDa dakartzan lana.

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak antolatutako Txapelketa Nagusiari buruzko lan mardula kalean da: 492 orrialdeko liburua eta CDa. Txapelketaren dokumentazio lan biribila da, eta hainbat edukiz osatuta dago.

Alde batetik, txapelketako 14 saioei buruzko kronikak eta saio bakoitzetik hautatutako bertsoak transkribatuta ageri dira liburuan. Irakurri ez ezik, bertsoak entzun ere ahal izango dira,

hautatutako bertsoaldi guztien audioak daudelako entzungai erantsitako CDan; zaleen gozamenerako ia 200 bertsoaldi batu ditugu, hau da, 700dik gora bertso. Horrez gain, doinuen azterketa eta partiturak ere badaude. Hori guztia txapelketan jasotako argazki dotorez jantzia.

Adituen analisiak ere, irakurgai

Bestalde, hainbat adituk talaia ezberdinetik behatu dute txapelketa,

eta beraiek idatzitako iritzi eta analisiak ere jaso ditugu liburuan. Informazio orokorra ere topatuko du irakurleak: bertsolari parte-hartzaileak, sailkapena, historia...

Lan hau Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak ondu du eta eskuragarri dago www.lanku.eus atarian zein Bertsozale Elkarteak Amasa-Villabonan duen egoitzan. Salneurri arrunta 30 eurokoa da - bidalketa gastuak gehitu behar zaizkio erosketa Internetez eginez gero -, eta Bertsozale Elkarteko bazkideentzako 25 eurokoa izango da kostua.



JOANES
ILLARREGI MARZOL



Donostia, 2018-I-28

Mikel Laboa Sariketako irabazlea

Doinua: Konfesatuta hau esateko

Publikoari eskerrik asko gertuko zaitut ikusi atzeko bostei mila zorion baduzue ta merezi: denok zarete bakar-bakarrak denok zarete berezi Mikel Laboak bere kantutan hala zigun erakutsi. Ez zaiozue inoiz inori hegoak lapurtzen utzi.

Eskuragai dago Txapelketa Nagusiari buruzko lan mardula. //XDZ

F.C.BAIMENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazio@bertsozale.eus

Doinuen loraldian, loreen zaindari

Inoiz baino doinu gehiago sortu dira 2017ko Txapelketa Nagusirako, baita daudenak gehiago erabili ere. Lantalde sendoa ari da doinuen bilketan lanean.

Esan beharrik ez dago Txapelketa Nagusiak bertsogintzan arrasto nabarmena utzi duela beste behin ere. Arlo askotan nabari bada ere, bereziki oparoa izan da txapelketa doinuei dagokionez. Martin Aramendi adituak dioen moduan, doinuei gagozkiela, "esan daiteke benetako udaberria, loraldia, bizi izan dugula udazkenean".

Datuei erreparatuta, 23 doinu berri plazaratu dira txapelketan, inoizko gehien; duela lau urteko txapelketan, adibidez, 6 kaleratu ziren.

Sortuta zeuden doinuen hautaketari dagokionez ere, oparoa izan da bertsolarien lana. 1967ko txapelketan, adibidez, 20 doinu bakarrik erabili ziren. Gero kopurua areagotzen joan zen, eta 1989ko txapelketan 156 izan ziren erabilitakoak. 2017ko udazkenean erabili dira inoizko gehien, guztira, 161.

Doinu berriekin egin beharreko lana

Txapelketan edo ez, doinu berri bat ateratzean martxan jartzen da lantaldea. "Ahalik eta daturik gehien biltzen saiatzen gara bertsolariarekin hitz eginda: nondik norako doinua den, musikariren batek egin dion edo berak moldatu duen, partiturarik baduen...", azaldu du Martin Aramendik. "Musikariren batek egin bada, hari eskatzen diogu partitura", gaineratu du. Horrela ez bada, eurek hartzen dute partitura sortzeko ardura. "Behin datuak, partitura eta MIDla eskuratuta ditugunean, doinutegian fitxa berri bat sortu, osatu eta argitaratu egiten dugu".

Lantalde handia izan ez arren, badira batzuk doinuen ardurarekin ari direnak. "Felix Irazustabarrena ibiltzen da bertso-

lariengandik hurbilen, eta normalean hark biltzen ditu lehenbiziko datuak", azaldu du Aramendik. Partiturei dagokionez, orain arte Joanito Dorronsorok sortzen zituen, eta azken txapelketan Miren Izagirre hasi da eginkizun horretan. "Joanito Dorronsorok ere lanean jarraitzen du, partiturak gainbegiratu, gure zalantzak argitu, irizpideak markatu... badugu haren beharra!", dio Aramendik. Xepelar Dokumentazio Zentrotik Itsaso Noya arduratzen da doinutegiaz, eta berak sortzen ditu fitxa berriak eta egiten ditu aldaketak. Koordinazio edo zubi lanean Martin Aramendi bera aritzen da. "Txapelketa garaian izaten da lanik gehien, baina urtean zehar ere egoten da zeregina kontsultei erantzun, akatsak zuzendu eta abarretan, eta saiatzen gara egin behar diren lanak ahalik eta ondoen egiten", dio.

Martin Aramendik berak doinuei buruzko analisia egin zuen Txapelketa Nagusian. Txapelketaren liburuan edota www.bertsozale.eus orrialdean dago irakurgai. Bestalde, doinu guztiak biltzen dituen doinutegia bisitatu nahi izanez gero, lotura honetan egin daiteke: bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia.



Doinutegia Interneten, bdb.bertsozale.eus-en, dago ikusgai. //XDZ

Martxoaren 10ean egingo da Batzar Nagusia, Iruñean

Lurralde bakoitzeko elkarten batzarrak eginda, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearna egingo dugu martxoko bigarren larunbatean.

Iritsi da balantzeak eta aurreikuspenak egiteko garaia. Urtarriletik martxoaren hasierara bitarte lurraldeetako batzarrak egin ondotik, datorren martxoaren 10ean, 10:30ean hasita, Iruñeko Kondestablearen Jauregian egingo dugu Euskal Herriko Bertsozale Elkartean Batzar Nagusia.

Batzarraren ostean bertaratutako bazkideon arteko bazkaria izango da. Bazkarira etortzeko asmoa duzuenok, otsailaren 28rako eman behar duzue izena +34 943694129 telefonora deituz edo komunikazioa@bertsozale.eus helbidera idatziz.



Iruñean egingo da aurtengo Batzar Nagusia. //XDZ

Iritsi dira Bardoak Nafarroara

Guztira, 16 talde eta 113 parte hartzaile ariko dira 2018ko Nafarroako taldekako bertso egitasmoan. Otsailaren 2an Beran abiatu eta martxoaren 24an bukatuko da, Lekunberrin.



Urtarrilaren 20an aurkeztu zen aurtengo Bardoak ekimena. //XDZ

Talde-lana eta auzolana izango dira Bardoak 2018 egitasmoaren oinarria. Aurreko edizioetan bezala, bertso-eskoletatik abiatuta, bertso-eskolen sarea eta bertsozaletasuna indartzeko xedea du proiektuak.

Otsailaren 2an abiatuko da Beran eta martxoaren 24an bukatu, Lekunberriko Toki Alai Sagardotegian egingo den finalarekin. Finala, lehiatz harago, Nafarroako bertsozalearen eta euskal kulturaren festa handia izango da.

Guztira 16 taldetako 113 parte-hartzaile izango dira aurtengo edizioan; horietatik 74 izango dira bertsozaleak. Bost partaide ditu talde bakoitzak, gutxienez: hiru bertsozale, gai-jartzaile/ aurkezlea eta taldeko ordezkaria. Eta hortik aurrera, nahi adina kide. Taldeak eskualdetako bertso-eskolen arabera osatu dira eta, ondorioz, talde-lanak izango du garrantzia: denen artean banatu beharko dituzte egin beharreko ariketak, ibilbide luzeko bertsozaleak zein hasiberriak nahastuta.

2012an sortu zen Bardoak, Nafarroako taldekako bertso egitasmoa. Orduetik, bi urtean behin antolatzen da.

Otsailaren 16an hasiko du Eskolartekoak aurtengo bidea

Lurralde bakoitzean lehen urratsak eginda, ekainaren 9an izango da Euskal Herriko Eskolarteko Bat-bateko Txapelketako finala Saran.

Hilabete honetan hasiko ditugu Eskolarteko Bat-bateko Txapelketako lehen saioak. Goiztiarrenak gipuzkoarrak izango dira; otsailaren 16an hasiko dute egitasmoa Zestoan. Hilabetez, ostiralero egingo dituzte saioak eta finala apirilaren 20an gauzatuko da Lasturren.

Bizkaian ere kanporaketa saioak egingo dira: apirilaren 19an egingo da lehena eta atzetik etorriko dira beste hiru. Euskal Herriko finalera sailkatuko diren bertsozaleak maiatzaren 6an ezagutuko ditugu, Balmasedan egingo den finalean.

Arabian, Nafarroan eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan, saio bana egingo da: Apirilaren 20an egingo dute nafarrek Iruñean; maiatzaren 12an egingo da Arabakoa Legutian; eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoari dagokionez, maiatzaren 19an izango da saioa Hazparnen. Arabian bat-bateko bigarren saio bat egingo da gaztetxoentzat, maiatzaren 26an, Gasteizen.

Horiek amaituta, lurralde bakoitzean sailkatutakoek parte hartuko dute Euskal Herriko Eskolarteko Bat-bateko Txapelketako finalean. Iazko tokia errepikatu eta Saran izango da ekainaren 9an.

Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak elkarlanean antolatzen dugu Eskolarteko Bat-bateko Txapelketa. Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian.



Iaz ere Saran egin zen Euskal Herriko finala. //XDZ



Puntua jarrita

ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR

Bai, Estitxu, paperak trukatu ditugu, eta nola gainera... 2013ko Txapelketa Nagusiko finalean jarri zuten kartzelako gaia dirudi gureak, "egoerak bertze aldean jarri zaitu". Gogoan dut nerabe nintzela zure txapelketako edo inguruko saioak entzutera joaten nintzenekoa, azken urtetan nire saioekin egitea egokitu zaizuna. Hala ere, aldaketa nabarmena ikusten dut gu bion egoeran, orduan nik ez nuen gin-tonikik eskuan izaten...

Bilakaera ezberdina izan du gu bion bertso jardunak. Zu gaztetxo zinela hasi zinen bertso eskolan, aitzinetik ikastolan harra sorturik. Eta bertsoan murgilduta eman zenituen hainbat urte, bertsolari, bertso eskolako irakasle... Nik aldiz, une horietan nahiko urruti sentitzen nuen bertsolaritza, nahiz zure saioen lekuko izan. Niri bertsoaren harra dexente urte beranduago sortu zitzaidan, behin hirugarren hamarkadara ailegatuta. Helduen bertso eskolak martxan jartzean, han ikusi nuen urtetan ezkutuan izandako bertsoarekiko zaletasuna azalertzeko aukera. Garai ezberdinak, adin ezberdinak... bertsoarako. Hala ere, gure bertso ibilbidea une ezberdinetan garatu arren, badugu partekatzen dugun momentu bat, gure bertso jardunen artean lokarri gisa aritu zena. Ta hori 2012ko Bardoak izan zen, Nafarroako taldekako bertso ekimena. Zuk bertsoa aspaldi xamar utzia, ni bertso eskolan hasi berria, hilabete lehenago nire lehen bertso "publikoa" kantatuta. Une horretan gurutzatu ziren gure bertso ibilbideak., A ze taldea osatu genuen Makukok, zuk eta hirurok, RIMAK EXKAXKO! Donostiako zure pisuko entrenamenduetatik hasi eta Leitzako finaleraino, ze oroitzapen ederrak! Inoiz talde hitzak zentzurik izan badu, uste dut testuinguru hartan hartu zuela bere dimentsiorik handiena. Agurrak prestatzerakoan, bertso bat osatzeko 3 oin bakarrik genituenean... zaila da orduan lortutako konplizitate momentuak bezalakoak edukitzea... Eta eskerrak horri, inguru hura eta talde horren babesa eduki izan ez banu, ziur nago gaur egun ez nintzatekeela kantuan ariko.

2018an gaude eta aurten ere Bardoak ibiliko dira Nafarroako herri zein auzotan. 4. aldía izanen da aurtengoa. Aitzineko hiruretan parte hartu izan duzu eta aurten ere ez duzu hutsik eginen, Julen. Zer moduz zabiltzate Bera aldean?

Koplak

Laster zabalduko da Bertso Udalekuen izen-ematea

Negua amaitzerako uda aurreikusten hasiak gara. Bertso Udalekuetan izena emateko epea laster zabalduko dugu: martxoak 12-23 bitarte eman ahalko dute izena gurasoetako bat Bertsozale Elkartekeo bazkide duten gazteek eta martxoaren 26tik apirilaren 13ra gainerakoek. Hezitzaile lanetan aritu nahi duenak otsailaren 12tik aurrera eman dezake izena, martxoaren 5era arte.

Poto-Finixa



Zangoak eta oinak

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Otsailaren 26an aurkeztuko da BBK Sariketa, Bilbon

Bertsolari gazteen BBK Sariketa ate joka dator: otsailaren 26an egingo dugu aurkezpen prentsaurrekoa Bilbon. Aurten ere zortzi eskualdek hartuko dute parte eta talde bakoitzean sei bertsolari egongo dira. Finala martxoaren 20an jokatuko da, Bilboko Kafe Antzokian.

**BERRIAK
JAIO
GINEN**

JON MAIA SORIA

LIBURU BERRIA!

Liburua erosteko eta informazio gehiago jasotzeko:

Lanku
www.lanku.eus
943 26 07 55

PUBLIZITATEA